

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ARMIÑONGO UDALA**

2021eko urriaren 15eko jakinarazpena, udal biztanle erroldan ofizioz baja ematen duen prozeduraren berri ematen duena Espedientea: BP 2/2021

Ondoren adierazten den pertsonari, saiatu arren, ezin izan zaionez jakinarazi udal honek jakin duela ez dituela betetzen Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren araudia onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutakoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan ezarritakoa betez, hau jakinarazten zaio:

NORTASUN AGIRIA	KONTZEJUA
X1963838Y	Estavillo

Udal honetako alkateak, urriaren 15eko 87/2021 Dekretuaren bidez, ebazpena eman du, Armiñongo udalerrian ohiko bizilekua ez izateagatik biztanleen erroldan ofizioz baja emateko.

Ediktu honen bidez entzunaldiko izapidea jakinarazten dizugu, 15 eguneko epea izan dezazun, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, udaletxe honetako bulegoetan agertzeko, 11:30etik 14:30era, espedientea aztertzeko, baja horrekin ados zauden ala ez adierazteko, eta zure bizilekua zein den frogatzeko aurkeztu nahi dituzun alegazioak, dokumentuak eta justifikazioak aurkezteko. Ohartarazten dizugu ezen, epe horretan erantzunik ematen ez baduzu, espedientea izapidetzen jarraituko dugula eta baja emango dizugula ofizioz Armiñongo Udaleko erroldan.

Armiñon, 2021eko urriaren 15a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ